

4. HERRITARREN SEGURTASUNA

SARRERA

Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorrak herritarrei babesa ematen die eskubideak zein askatasunak balia ditzaten, eta herritarren segurtasuna bermatzen du elkarbizitza baketsuaren alde eginik eta pertsonak zein haien ondasunak babestuta, betiere legeekin bat. Halaber, izan daitezkeen larrialdiei aurrea hartu eta horien ondorioak ahal den arinenak izatea du helburu.

a) Herritarren Segurtasuna

- Lankidetzaz Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako Alorrek, Iruñeko Herritarren Segurtasunari buruzko azterlana egiteko. Bertan, toki seguruak eta seguru ez direnak aztertu eta bigarrenak hobetzeko neurriak proposatuko dira auzoko autosegurtasunaren printzipioari helduta, orain arteko poliziaren presentzia handiagoari eta kamera espioen ugaltzeari eutsi beharrean.
- Zirkulazioaren diziplina kudeatzea.
- Ikuskizun publikoen eta aisia-jardueren diziplina kudeatzea.
- Gizabidez jokatzeko diziplina eta beste ordenantza batzuk kudeatzea.
- Aparkatze mugatuko eta murriztuko eremuak.
- Ordenantzak eta bandoak betearaztea.
- Lizenziak egiaztatzea.
- Ikuskapenak eta gainerako alorren aldeko laguntza.
- Eremu publikoaren erabileraren kudeaketa, karpina eta aldi baterako instalazioena barne, bai eta horien funtzionamendurako baimena ere.
- Zirkulazioaren erregulazioa eta kontrola.
- Bide-segurtasunarekin zerikusia duten zereginak.
- Ospakizunen eta bilkuren kontrola.
- Ibilgailuak erretiratzeko garabi-zerbitzua kudeatzea.
- Atestatuak egin eta sorospenak ematea istripuetan.
- Polizia judizialaren eginkizunak.
- Babes zibilar dagozkion zereginak.
- Anbulantzien eta suhiltzaileen zerbitzuendako laguntza.
- Delinkuentziaren prebentzioa.
- Salaketak tramitatzea.
- Objektu galduen bulegoko ardura.

- Gizarte-babesa gauzatzea, poliziaren esparruan.
- Udal-agintarien babesa.
- Udal-eraikinen babesa.
- Zaintza-talde iraunkorra.
- Ferien, azoken eta antzekoen kontrola.
- Hiriko segurtasun-planak planifikatu eta gauzatzea.
- Aurrekoen antzeko beste edozein eskumen, herritarren segurtasunarekin eta babes zibilarekin zerikusirik izanez gero.

b) Bitartekaritza

- Bitartekaritza-bulego bat sortzea, era ez traumatiko batean konpontzen laguntzeko partikularren arteko arazoak zein Administrazioarekikoak.
- Kultura berri bat sortzea polizia-jardunean, zigorrari baino gehiago prebentzioari begiratzen diona.

c) Mugikortasuna

- Espazio publikoaren erabilera antolatu eta arautzea, ibilgailuen zein oinezkoen mugikortasuna bermatze aldera.
- Xedapenak eta arauak egitea, ibilgailuen zirkulazioa, trafiko-seinaleak, aparkatzeko tokiak eta bidaiarien zein salgaien garraioa arautzeko, Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko Alorrarekin koordinatuta.
- Semaforoen erregulazioa kudeatzea.
- Zirkulazioa antolatzeko jarduketak zuzendu eta arautzea.
- Hiriko seinaleak.
- Aparkatzeko baimen bereziak ematea mugikortasun urriko pertsonei, bai eta beste edozein baimen ere, baldin eta mugikortasunarekin zerikusirik badu eta hari buruzko eskumena beste inongo organori ez bazaio egotzi.

Helburu horiek guztiak lortzeko, 4 programa handi lantzen dira:

- a) Eremu publikoaren kudeaketa
- b) Babes zibila
- c) Bide-segurtasuna
- d) Herritarren Segurtasuna
- e) Zirkulazioa eta mugikortasuna

HERRITARREN SEGURTASUNA ETA ELKARBIZITZA

EREMU PUBLIKOAREN KUDEAKETA

JARDUERAK EREMU PUBLIKOAN

2016. urtean, 840 jarduera baimendu ziren eremu publikoan. Horrek erakusten du jardun handia dagoela Iruñeko kaleetan, urte osoan zehar. Baimena eman aurretik, auzokideei erasaten ez dietela baieztatzen da, edo, bestela, erasanak ahalik eta txikienak izan daitezen behar diren neurriak exijitzen dira. Eremu publikoan jarduerak egin dituzten entitateek, pertsonak eta elkarteek oro legearen arabera eratuak egon behar dute, eta izena emanik egon Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorreko Ikuskizun eta Josteta Jardueretarako Enpresen Erregistroan.

Udalak eremu publikoan antolatzen dituen jardueren adibide bat San Blas eguna da, egun horretan 21 postu jartzen baitira San Nikolas plazan eta San Migel kalean, Sarasate pasealekuaren eta San Nikolas plazaren artean, opilak eta gozoak saltzeko, goizeko 09:00etatik gaueko 09:00etara. Beste adibide tradizional bat gaztainen salmenta da. Udalak, izan ere, 12 kokaleku eskaintzen ditu; gehienak, Alde Zaharrean daude.

Halaber, Udalak urtero baimenak ematen ditu produktuak postu finkoetan eta salmenta ibiltarian saltzeko sanferminetan, hiriko auzoetako jaiak ospatzeko, inauteriak ospatzeko, eta Landabengo azokan, etab.etan saltzeko.

Baimendutako jarduerak	2012	2013	2014	2015	2016
Kirol-jarduerak	38	64	52	61	68
Eskeko mahaiak eta mahai informatiboak	44	51	54	67	59
Kultur jarduerak	26	12	5	15	12
Erakusketak eta publizitate-kanpainak	15	40	33	43	39
Informazio- eta publizitate-autobusak	31	27	48	33	17
Merkataritza-jarduerak	36	20	33	38	31
Festa-ekitaldiak	208	235	274	254	271
Desfileak	55	50	59	90	68
Filmaketak	13	15	17	19	24
Auzoetako festak	12	11	11	12	11
Askotariko	72	9	54	30	28

baimenak					
Terrazak	73	117	147	174	168
Jarduerak Sanferminetan	91	91	44	48	44
Guztira	714	742	831	907	840

TERRAZAK ETA ELEMENTUAK EREMU PUBLIKOAN

2016ko bukaeran, 676 lizentzia emanik zeuden eremu publikoan terrazak jartzeko, eta 91 lizentzia, bestelako okupazioetarako (loreontzi-euskarriak, erakustokiak, etab.), Eremu publikoan terrazak eta ostalaritzari nahiz dendei lotutako beste elementu batzuk jartzea arautzen duen ordenantza 2013ko urtarrilean indarrean sartu zenetik, data hori baino lehenagoko lizentziak berrikusten ari dira, ordenantzarekin bat datozen ikusteko.

MANIFESTAZIOAK ETA ELKARRETARATZEAK

Bilera Eskubidea arautzen duen eta apirilaren 21eko 9/1999 Lege Organikoak aldatu zuen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoa betez, Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorrak txostena ematen du Gobernu Ordezkaritzak Iruñean baimendutako elkarretaratze eta manifestazio guztiei buruz, eta, zirkulazioa kontrolatzen du haietan, normaltasunez egin ahal izateko. Guztira 841 ekitaldi egin ziren: 743 elkarretaratze eta 98 manifestazio.

SANFERMIN FESTAK

Sanferminetarako plan orokorrak babes zibilaren ekintza nagusiak zehaztu ditu; hots, egitarauan ageri diren ekitaldiak eta jaietako eguneroko bizitza babestu eta zaintzea, bai eta ekintza zehatzagoak ere, hala nola bide-zirkulazioa berregituratzea. **Babes zibileko 124 laguntzaile** kontratatu ziren jaietarako (*naranjito* deritze), sarbideak kontrolatzeko lanetan, zaintzan, hainbat ekitaldiren laguntzan eta objektu galduen bulegoan aritzeko. Halaber, berariazko bi kontratu egin ziren, obra-hesien eta osagarrien inguruan, hainbat eremu babesteko, hala nola harresiak, su artifizialak, ganadu-feria, Gaseko eskortak, hiribus-geralekuak eta lorategiak; kontratu bata hornikuntza eta garraiorako da; eta bestea, berriz, hesiak nahiz osagarriak jarri, mantendu eta kentzeko.

Feria-lekua, zazpigarren urtez jarraian, Runa parkean ezarri zen, 30.000 metro koadrotik gorako azalera batean, Arrotxapeko eta El Vergel zubien artean, hitzarmen bidez Erruki Etxeari lagata. 76 atrakzio ezarri ziren. Aurreko urteetan bezala, kalean ere salmentarako postu finkoak baimendu ziren. Zehazki, 152 postu Taconeran jarri ziren; 7, II. Zabalguneko hainbat tokitan;

eta 5, San Nikolas plazan.

Gainera, handitu egin zen eremu publikoan festari eskainitako aldea, toki hauetan guztietan baimendu baitziren festaguneak: Vistabellan, San Jose plazan, Errekoleten plazan, San Frantzisko plazan eta Basotxoan; Antoniuttiko ostalaritza-instalazioak ere baimendu ziren.

ERASO SEXISTEN AURKAKO KANPAINA

Udalak garatutako **Eraso sexistarik gabeko jaien alde** kanpainaren baitan, parte-hartzaile guztiei gogoratu zitzaion Udalak konpromisoa daukala ez onartzeko, eta irmotasun handiz jazartzeko, festak gozatzean emakumeen askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna kaltetzen ahal dituzten portaerak oro.

Ekainean, ondoko mezua erakusten zuten kartelak jarri ziren hiriko sarbideetan: "Pamplona no tolera las agresiones sexistas / Iruñeak ez du eraso sexistarik onartzen".

GANADU FERIAK

Sanferminetako ganadu-feria tradizionala uztailaren 7an egiten da, **San Fermin egunean**, Iruñeko Agustindarren industrialdeko 14.300 m²-ko lursail batean; Espainiako iparraldeko garrantzitsuenetako bat da. Zaldi-aziendarena da feria: zaldiak, zaldikumeak, astoak eta mandoak. Autonomia-erkidego desberdinetako abeltzainak, tratulariak eta zaldi-zaleak joan ohi dira. 154 eskorta jarri ziren, eta 56 abeltzain joan ziren, guztira 653 abelburu eramanda.

Urteko bigarren ganadu-feria **sanmigeletakoa** da, irailaren 29an egiten dena, hori ere Iruñeko Agustindarren industrialdean. Orduan, 91 eskorta arrunt, 12 bikoitz eta hipodromo bat, abereak erakusteko, jarri zituen Udalak. 2016an, 267 abelburu erregistratu ziren.

ERREGEEN KABALKADA

Segurtasun-neurriak hartzen dira, kabalkadak egiten duen ibilbidean istripurik ez izateko. Ibilbidea Foruen plazatik Gazteluko plazaraino doa. Adibidez, babes-hesi bat paratu zen; guztira 1.400 hesi iraulezin. Halaber, orgetan lurrerainoko oihalak jartzea exijitu zen, eta kabalkadako mutilek alboak zaintzea.

KALEKO PLAKAK JARTZEA

Kaleen identifikazioari dagokionez, hainbat plaka aldatu ziren Mendillorriko kaleetan, gaztelaniak eta euskarak presentzia bera izateari buruzko udal-ordenantza betetze aldera. Halaber, plaka berriak jarri ziren izendapen berria emandako kale, plaza edo parkeetan: Julián Arteaga kalea, Askatasun plaza, Felix plaza, Maiatzaren Lehenaren plaza, Serapio Esparza parkea, Nafarroako Erresumaren Lorategietako plaza, Fuente de la Teja kalea eta Fuente de la Teja zeharkalea.

LANDABENGO AZOKA

Beste urte batez ere, Landabengo azokak jardunean jarraitu zuen. Guztira 183 salpostu ipini ziren beste horrenbeste titularri esleituta, eta 10.000 pertsona inguru bertaratu ziren egun bakoitzean. Zehazki, 73 postu produktu jangarrien eremuan jarri ziren, eta 110 jangarriak ez diren produktuak saltzeko izan ziren. Ostalaritza-jarduerak ez daude baimenduak. Urteko igande guztietan dago zabalik, uztail eta abuztukoetan izan ezik, 09:00etatik 14:30era.

OBJEKTU GALDUAK

Herritarrek horra eramaten dituzten objektu guztiak erregistratu egiten dira datu-base bakar batean. Gehienak, polizia-zerbitzuek, posta-bulegoek, eskualdeko hiri-garraioaren enpresa esleipendunak eta merkataritzaren arloko beste entitateek –hipermerkatuek kasu– entregatzen dituzte. Objektuak udal-egoitzetan gelditzen dira gordailuan, eta langileak jabeak aurkitzen saiatzen dira. 2016an, 7.714 objektu erregistratu ziren; 2015ean, berriz, 6.816. Jabeei 3.714 itzuli zitzaizkien (2015ean, 3.233).

HERRITARREN SEGURTASUNA ETA ELKARBIZITZA BABES ZIBILA

U HOLDEEI AURRE EGITEKO PLANA

2016. urte osoan zehar ez da beharrezkoa izan Uholdeei aurre egiteko Plana aktibatzea, Elortz eta Arga ibaien ur-emariek ez baitituzte gainditu horretarako ezarritako gutxieneko mugak. Udalak *NOE* informatika-aplikazioa erabiltzen du, Tesicnor enpresak 2013an garatu zuena. Uholdeak direnean, egin beharreko lanak agindu eta arintzeko aukera ematen du, larrialdi-mailen arabera.

IBAIEN GARBIKETA

Arga eta Elortz ibaietan garbiketa-lanak egin ziren; hau da, zuhaitzak eta adarrak kendu ziren, izan daitezkeen uhaldiek ahalik eta kalterik txikienak eragin ditzaten ibaiak zeharkatu eta uholdeak gerta daitezkeen auzoetan. Gainera, hiriko leku adierazgarri batzuetako baldintza estetikoak hobetu ziren, eta Argari dagokionez, zaldainetako irisgarritasun-baldintzak bermatu ziren, ibaia zeharkatzeko.

2016an, sei aldiz esku hartu zuen Udalak ibaietan, eroritako zuhaitzak kentzeko zein animalia hilak ateratzeko. Zehazki, Beritxitu aldean eskua hartu zen, hilerriaren eta Sanduzelai auzoaren arteko tartean, martxoan, tamaina handiko zuhaitz bat erori eta zeharka geratu baitzen ibilguan. Hilabete berean, ibaiertzean, Club Natación elkarteko zaldainetatik hurbil, usteltzen ari zen ardi bat kendu zuten. Maiatzean, aldiz, Landaben aldean, ibai-pasealekuan, Miluzeko zubiaren errepidetik hurbil, hantxe eroritako zuhaitz bat kendu zen, jendearen joan-etorria oztopatzen zuelako.

Bestetik, otsailean, azaroan eta abenduan, adarrak eta zaborrak kendu zituzten Club Natación elkarteko zaldainetatik eta aldameneko plaiatik.

IZOTZ- ETA ELUR-PLANA

Elurrei eta izotzei aurre egiteko Plana eguraldi-baldintzek behartuta gaitzen da, eta xedea da eguraldi txarrak herritarren eguneroko bizimodua ahalik eta gutxiena ukitzea, zerbitzu publikoak dauden lekuetarako sarbideetan, bereziki. Planaren baitan, Iruñeak 220 pertsona ditu atxikiak garbiketa, obra eta lorategietarako udal-zerbitzuen enpresa kontratistetan, eta 11 ibilgailu ditu elurra kentzeko xaflekin eta/edo gatz barreiatzeko gailuekin. Gainera, Trinitarios aldeko gatz-biltegian bi silo daude, 100na tonako edukierakoak. Horrez gain, 450 tona gatz soltean eta 30 tona gatz 25 kilogramoko zakuetan gordetzen ditu, ikastetxeetan, osasun-etxeetan eta organismo publikoetan banatzeko, bai eta gatz eskatzen duten auzokideei ere.

2016an zehar, 6 aldiz aktibatu behar izan zen plana. Ondoko egun hauetan aktibatu zen, zehazki: urtarrilak 15, otsailak 15, martxoak 9 eta 10, martxoak 14, abenduak 30 eta abenduak 31.

	2012	2013	2014	2015	2016
Elurra kentzeko makinek zenbat egunetan esku hartu behar izan zuten	7	1	1	3	6
Gatza zenbat egunetan barreiatu zen izotz-iragarpenek eraginda	12	2	2	5	10
Erositako gatz (tonak)	140	200	0	213	0
Gatz-izakinak, soltean (tonak), abenduaren 31 arte	500	500	600	450	250
Gatz-izakinak, 25 k-ko zakutan (tonak), abenduaren 31 arte	20	20	20	30	15

HERRITARREN SEGURTASUNA ETA ELKARBIZITZA BIDE SEGURTASUNA

POLIZIA JUDIZIALAREN JARDUKETAK

2016an, Iruñean, 2.554 zirkulazio-istripu gertatu ziren. Horietatik, 145 harrapatze-istripuak izan ziren. Istripu gehienen ondorio nagusia kalte materialak izan ziren (2.022), baina zaurituak gertatu ziren bost istriputatik batean. Eta, hiru istriputan, heriotzak izan ziren. Hiru hildakoez gain, 659 zauritu gertatu ziren istripuetan: 611 arinak eta 45 larriak.

145 harrapatzeetatik, 81 semaforo-erregulaziorik gabeko oinezkoendako pasabideetan gertatu ziren; 28, galtzadan; 20, espaloi eta oinezkoendako bideetan; eta 16, oinezkoendako pasabide semaforodunetan.

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Istripuak guztira	3.090	3.004	2.786	2.585	2.757	2.557	2.273	1.928	2.123	2.257	2.554
Harrapatze-istripuak	180	166	165	171	143	153	146	141	144	142	145

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Hildakoak	2	4	3	0	6	3	5	2	1	2	3
Zauritu larriak	70	71	69	61	33	26	22	31	37	31	45

2016an, 431 etilometria-kontrol egin ziren, bai arau-hausteetan, auto-istripuetan eta prebentzio-kontroletan. Guztira 18.748 proba egin ziren: 18.067 negatiboak izan ziren, eta 681, berriz, positiboak.

2016an, bide-segurtasunaren aurkako 282 delitu izan ziren Iruñean; hau da, 2015ean baino 26 gutxiago. Gehienak auzitegietara bideratutako etilometria positiboan ondorioz izan ziren: 179 (2015ean, 192). Halaber, guztira 67 lagun atxilotu zituzten gidabaimenik gabe gidatzen ari zirelako (2015ean, 60), puntuak galdu izanaren ondorioz edo epai judizialez gidabaimenik gabe gelditu izanaren ondorioz, edo gidabaimenik ez izatearen ondorioz. Beste 16 lagun (29,

2015ean), arduragabekeriaren ondorioz lesio-delitua egiteagatik. Horrez gain, 8 delitu egin ziren (13, 2015ean) etilometria-kontrola egiteari uko egiteagatik; bost, hirian ausarkeriaz gidatzeagatik (2015ean bezainbeste); bat, substantzia estupefazianteen eraginpean gidatzeagatik (2015ean, 3); eta hiru, homizidio-delitu (2015ean, 2), arduragabekeriak jokatzearen ondorioz. Berriz ere gainditu zuen norbaitek hiriko abiadura-muga orduko 60 kilometrotan baino gehiagotan. 3 aldiz gertatu zen hori 2016an, eta behin, 2015ean, eta behin ere ez, 2014an.

2016an, Udaltzaingoak 149 droga-proba egin zituen; 45etan emaitza positiboak izan ziren, baina bakar bat bideratu zen auzitegietara.

Horrez gain, 1.746 zirkulazio-kontrol egin ziren: abiadura radarrarekin kontrolatzea (1.173), dokumentazioa (62), eskola-garraioa (30), hainbat arau-hauste (211) eta etilometriak (270).

Bestalde, trafiko alorreko talde teknologikoak 365.519 ibilgailu kontrolatu zituen radar mugikorrarekin 1.579 kontroletan; guztira, 1.113 salaketa jarri ziren. Gainera, kabina finkoetan kokaturiko radarrek 4,5 milioi ibilgailu baino gehiago kontrolatu zituzten; haietako 2.376ri salaketa jarri zitzaion, eta kasu bakar batean gertatu zen deliturik. Azkenik, *visual car* tresnaren bidez (ibilgailu ofizial batean ezarritako tresna batek ibilgailuetako matrikulak irakurtzen ditu), 288 auto atzeman ziren aseguratik gabe, lapurtutako 3 eta 221 gaizki aparkatuta, salaketa jaso zutenak. Gainera, semaforo batzuetan jarritako *argazki-gorri* deritzon sistemarekin, 8.102 irudi tratatu, eta 1.033 salaketa egin ziren. Autobus-geltokiaren aurrean, badago aldi baterako aparkatzeko moldatua dagoen eremu bat, bidaiarien joan-etorria errazteko; bada, eremu horretan 552 salaketa jarri ziren; 2015ean, aldiz, 715.

HERRITARREN SEGURTASUNA ETA ELKARBIZITZA

HERRITARREN SEGURTASUNA

POLIZIA JUDIZIALAREN JARDUKETAK

2016an, 11.826 delitu egin ziren Iruñean, Iruñeko Udaltzaingoak, Foruzaingoak eta Polizia Kidego Nazionalak emaniko datu bateratuen arabera. Iazkoarekin alderatuta % 11,9 hazi zen kopurua 10.569 egin baitziren 2015ean. % 53,4 faltatzat jo ziren (6.313), eta % 6, delitutzat (5.513). Kriminalitate-tasa (delituak eta faltak) 55,62 izatetik 62,64 izatera igaro zen mila biztanleko.

Pertsonen aurkako delituak	1.114
Tratu txarrak eta sexu-askatasunaren aurkako delituak	516
Lapurreta-delituak bortxa edota larderia erabiltuta	289
Lapurreta-delituak bortxa erabiltuta	1.081
Ondarearen aurkako delituak	7.585
Gainerako delituak (estupezaziente-trafikoa barne)	1.240
DELITUAK GUZTIRA	11.826

342 nazional eta 428 atzeritar igaro ziren Atxilotuen Zaintzagunetik. Atzeritarrei dagokienez, gehienak hegoamerikarrak (188), Europar Batasuneko europarrak (90), erdialdeko amerikarrak (65) eta afrikarrak (58) izan ziren. Delitu-motei dagokienez, aldiz, usuenak tratu txarrak familia-eremuan (162) eta edari alkoholadunen eraginpean gidatzea (147) izan ziren. Gainera, 640 ikerketa-espeditente zenbatu ziren 2016an, haien erdiak ondare eta ordenaren aurkako delituak izan zirela (329).

Substantzia estupefazianteen atzipen-kopuruak gora egin zuen 2016an. Guztira, 477 atzipen egin zituen Iruñeko Udaltzaingoak, haietako 74, 18 urtetik beherakoei. Horrek esan nahi du % 18,4 handitu zela, halako 403 kasu gertatu baitziren 2015ean. Marihuana atzitu zieten kasu gehietan (309). Hala ere, kokaina (60), haxixa (55) eta speeda (35) ere atzitu ziren.

	2014	2015	2016
Anfetamina	7	10	2
Kokaina	57	52	60
Kokaina + anfetamina	1	2	0
Pilulak	0	1	1
Estasia (MDMA)	178	5	1
Haxixa	47	47	55
Heroina	13	6	5
Ketamina	1	2	1
L.S.D.	1	0	0
Marihuana	252	233	309

Baliogabeak	4	1	0
Beste batzuk	18	16	13
Speeda	31	28	35

Beste alde batetik, 2016an, Udaltzaingoak 285 objektu konfiskatu zituen: arma zuriak (61), erremintak (45), drogei lotutako instrumentuak (9) eta beste hainbat. Egindako 216 aktetan, 27tan adinez txikikoak zeuden nahastuta.

UDAL-ORDENANTZAK URRATZEA

Iruñeko Udalak eta Udaltzaingoak udal-ordenantzak betetzen ote diren begiratzen dute, hirian bizikidetzaren onak bermatzeko eta herritarren eskubideak nahiz ondasun publikoak errespetatzea ziurtatzeko. 2016an, 1.390 salaketa jarri ziren udal-ordenantzak urratzeagatik; 2015ean, aldiz, 1.206. Eredu publikoan pixa egitea, substantzia estupefazianteak izatea eta auzokideen atsedena tratatzen duten zaratak egitea izan ziren zehatutako portaera nagusiak. Halaber, 396 salaketa jarri ziren Herritarren Segurtasuna Babesteko 4/2015 Legea urratzeagatik.

Udal-ordenantzei egindako urraketa nagusiak

Txiza egitea eremu publikoan	597
Substantzia estupefazianteak edukitzea	233
Salmenta ibiltaria	74
Agintaritzaren aginduak ez betetzea	61
Zaborra, paperak, beirakiak... botatzea	56
Auzokideen atsedena tratatzen duten zaratak egitea	50
Zerbitzu publiko baten jarduna tratatzea	66

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Salaketen bilakaera	1.814	1.220	1.405	1.064	1206	1.390

ZIRKULAZIO-SALAKETAK

2016an, 44.916 zirkulazio-salaketa jarri ziren guztira. Haietako 29.936 TAOko zaindariak jarri zituzten (% 67 guztira). Gehien-gehienak aparkatzearekin zeuden lotuta (38.078). Halaber, 3.228 salaketa abiadura urratzeagatik jarri ziren; 1.604, zirkulazio-seinaleak ez errespetatzeagatik; eta 772, alkoholaren eraginpean gidatzeagatik. Salaketa guztietatik, 1.547

Trafikoko Zuzendaritza Nagusira bidali zituzten, zehapena jartzeko entitate eskuduna baita. Ohikoenak aseguruia ez izateagatik (615) edo indarreko IAT gabe gidatzeagatik (599) izan ziren.

Zirkulazio-salaketak 2016

Aparkalekua	38.078
Abiadura	3.228
Seinaleak	1.604
Alkohola	772
Mugikorra	456
Ausarkeriaz gidatzea	139
Gainerakoak	639

DGTra igorritako salaketak, haren eskumenekoak izateagatik

	2016	2015
Asegururik ez izatea	615	531
Zirkulazio-baimenik ez izatea	15	15
Gidabaimenik ez izatea	16	29
I.A.T.	599	506
Marrazkirik ez duten pneumatikoak	58	40
Homologazio-baldintza teknikoak ez betetzea	49	48
Gidabaimena iraungia dela gidatzea	76	75
Beste hainbat kontzeptu	119	107
GUZTIRA	1.547	1.351

OSTALARITZAKO ARAU-HAUSTEAK

2016an, ostalaritzan, 133 arau-hauste atzeman ziren; hau da, aurreko urtean baino 66 gutxiago. Gehienak establezimenduak ixteko ordutegia ez betetzeagatik (37) edo terraza-jarduera ordutegitik kanpo egiteagatik (17) izan ziren. Terraza ez garbitzegatik (17) edo edukiera gainditzeagatik (20) jarritakoak ere aipagarriak dira.

Establezimenduak	2016	2015
Lizentziarik gabeko jarduerak	3	
Erreklamazio-orririk ez izatea	1	
Musika 11:00ak baino lehen piztea		17
Edukiera gainditzea	20	16
Baimen-baldintzak ez betetzea		
Ixteko ordutegia ez betetzea (tabernak)	37	64
Jarduera garatzeko arauak ez betetzea		8
Bozgorailuak kanpoaldean baimenik gabe jartzea	4	
Adingabeei alkohola saltzea debekatua dagoelako kartelak ez izatea		
Baimenik gabe zuzeneko emanaldiak ematea	5	
Adingabeei edariak kontsumitzen uztea		
Arau-hauste arinak errepikatzea eta behin eta berriro egitea		
Lokaletik kanpo edaria ateratzea		50
Soinu-muga gainditzea		
Lizentziarik gabe edari alkoholodunak saltzea		
Lizentziarik gabe zuzeneko emanaldiak ematea		3
Beste batzuk	3	
Terrazak		
Terraza baimenik gabe paratzea	7	
Terraza jartzeko baimenaren baldintzak ez betetzea	7	
Baimendutakoak baino elementu gehiago jartzea	2	7
Terraza-jarduera ordutegitik kanpo egitea	19	13
Terraza kentzeko agindua ez betetzea	3	
Baimenik gabeko elementuak paratzea	1	3
Terraza ez garbitzea	17	
Terraza-eremutik kanpo edaria ateratzen uztea	2	18
Aulkiak terrazan gordeta izatea		
Guztira	133	199

GARABIAK IBILGAILUAK ERAMATEA

	2016	2015
Guztira	10.974	8.283

Iruñeko Udalaren zerbitzu batek SMS bidez jakinarazten du udal-garabiak ibilgailua eramanez duela, gaizki aparkatuta egoteagatik. 2016ean, 825 mezu bidali zituen, eta horri esker, garabiak ez zituen eraman 315 lagunen ibilgailuak. Alerten xedea da garabiak eremu publikotik ibilgailu gutxiago eramatea. Garabiak ibilgailuak eramaten ditu gaizki aparkatuta egoteagatik (zamaketa-lanen eremua, minusbaliatuei gordetako lekuak, oinezkoendako pasabideak, bidegurutzeak edota bigarren ilara) edota aparkatze mugatuko eremua ez ordaintzeagatik (eremu urdina, laranja eta gorria). Doako abisu-sistema Iruñean ibilgailuz dabilen edo bertan aparkatzen duen lagun ororen eskura dago, haien ohiko bizilekua non dagoen alde batera utzita.

ENTZIERROAREN ORDENANTZA URRATZEAK ERAGINDAKO SALAKETAK

	2016	2015
Bigantxari buztanetik heltzea		
Zaborrak entzierroaren ibilbidera botatzea, behin garbi dagoenean		1
Entzierroa (zezenei deitzea, objektuak eramatea...)	3	1
Bideoa entzierroaren ibilbide barnean grabatzea	1	
Entzierroan ibilbidean bideoa grabatzea	4	
Entzierroan abelburuei deitzea	4	1
Entzierroaren ibilbide barneko toki debekatuetan egotea	4	1
Bigantxen gainera igotzea		
Entzierroan abelburuak ukitzea	1	
Objektuak jaurtitzea hondarrera eta/edo ikusleei	11	
Guztira	28	4

ZIRKULAZIOA ETA MUGIKORTASUNA SEINALEZTAPEN HORIZONTALA ETA BERTIKALA

Iruñeko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko otsailaren 16an egindako bilkuran, Aceinsa Movilidad SA. enpresari esleitu zion hiriko seinaleztapen horizontal eta bertikalaren ezarpen berrirako eta mantentze-lanetarako kontratua. 2016rako zen kontratua, eta urtebeteko hiru luzapen egin dakizkioke.

Honatz horretan egindako jarduketa nagusiak 2016an:

- Segurtasuna hobetzea Biurdana kaleko biribilgunean, Donibane BHI-aren aurrean, seinaleztapen horizontal eta bertikalaren diseinu berria egin baitzen: biribilguneako diametroa handitu, eta zirkulazio-errei bakarrera murriztu zen, ibilgailuen abiadura mantsotzeko. Halaber, biribilguneako perimetroan dauden oinezkoendako pasabideen segurtasuna eta ikuspena hobetu zen, zirkulazio-errei bakarrak zeharkatzen baitu haietako bakoitza.
- Segurtasuna hobetu zen Ermitagaña kaleak eta Miluze kaleak bat egiten duten biribilgunean, Jaso ikastolaren aurrean, seinaleztapen horizontal eta bertikalaren diseinu berria egin baitzen; diametroa handitu eta erreien zabalera murriztu baitzen, ibilgailuen abiadura mantsotzeko eta biribilgunearen irteeretako oinezkoendako pasabideetan ikuspena handitzeko. Gainera, 5 kuxin berlindar jarri ziren arrisku handieneko oinezkoendako pasabideen aurrean.
- Oinezkoendako pasabide berria egin zen Larraina multzoaren eta Larraina parkearen artean, galtzadaren ondo-ondoan zegoena kendu eta oinezkoendako bide berria egin baitzen lorategi-eremu batean zehar.
- Amaia kaleko erreien zabalera handitu zen, Leire kalearen eta Teobaldoen kalearen artean, bateriako aparkalekuak kendu eta lineakoak jarri baitziren.
- Segurtasuna hobetu zen Azpilagañako ingurabideak, Miguel Astráin kaleak eta Unibertsitateko errepideak bat egiten duten tokian, ibilgailuak ezkerretara biratzea oztopatzen duen minibiribilgune bat jarri baitzen, segurtasuna eta maniobragarritasuna hobetuta.
- Segurtasuna hobetu zen eskuinetara biratzean Nafarroa Behereko etorbideko irteeretan, autobus-erreien zehar (13 irteera)
- Oinezkoendako pasabide berriak egin ziren Navarro Villoslada BHI-aren aldean: San Fermin-Zangoza (4), San Fermin-Aita Calatayud (3) eta San Fermin-Huarte doktorea

(4).

- Iruña eta Barañain Miluze kalearen bidez lotzen dituen bidegorria hobetu zen, erreia-aren zabalera handitu, falta ziren elementu bereizleak jarri eta seinaleztapen horizontala eta bertikala hobetu baitzen.
- Oinezkoendako pasabide berriak. 2016an, 18 oinezkoendako pasabide jarri ziren: Doneztebe 6, San Kristobal 8, Salado erreka-Ega ibaia, Alfontso Borrokalaria 7, Rinaldi multzoa 6 eta 11, Ega ibaia 28, San Fermin (11 pasabide) eta Erreginaren aldapa-Iratxeko monasterioa (aldatu egin zen).

OINEZKOAK ETA IBILGAILUAK ELKAR IKUSTEKO HOBEKUNTZAK

- **Motozikletendako aparkaleku berriak izkinetan, oinezkoendako pasabideen aurretik eta garajeen irteeretan.** 86 leku berri jarri ziren hiri osoan zehar, 18 aparkalekutan. Neurri horri esker, errazago ikusten dute elkar oinezkoek eta gidariek, segurtasuna handituta, eta motoak aparkatzeko leku gehiago sortzen dira. Hauetan guztietan jarri ziren motoendako aparkalekuak: Doneztebe 6; Eunateko monasterioa, Irantzuko monasterioarekin bat egiten duen bidegurutzearen ondoan; San Kristobal eta Mendigorria kaleen arteko bidegurutzea; Artika 2, Ugaldeko Andre Maria kalearen aurrean; Iratzeko monasterioa, Erreginaren aldaparen ondoan; Allozko monasterioa, San Juan de la Cadena ikastetxearen ondoan; San Kristobal 8 eta 10; Kaiko kalean, Cuatrocientos institutuaren aurrean; Alfontso Borrokalaria 3 eta 8; San Joan Bosco eta Serafín Olave kaleen arteko bidegurutzea; Felipe Gorriti 2; Erriberri 15; Antso Ramírez 31; San Joan Bosco eta Iturrama kaleen arteko bidegurutzea; Rinaldi multzoa 6 eta 21; eta Ega ibaia 28.
- **Ikuspenaren hobekuntza gune arriskutsuetan.** Seinaleztapen bertikala eta horizontala jarri zen motoendako aparkalekuak errazago ikusi ahal izateko. Zehazki, 2016an, 9 zebra-marradun irlatxo jarri ziren. Halaber, bateriako plazak kendu eta lineakoak jarri ziren, oinezkoendako pasabideak errazago ikusi ahal izateko. Haietako 5 egin ziren.

APARKATZE BEREZIAK

- **Zama-lanetarako eremuak.** Bi espazio-erreserba berri sortu ziren (bata, Urdazubiko monasterioa kalean, eta bestea, Erreginaren aldapan), inguruko establezimenduak salgaiz hornitzeko lanak ahalbidetzeko, eta zirkulazioari ahalik eta trabarik gutxien egiteko.
- **Aparkatzeko lekuak minusbaliatu fisikoentzat.** Ofizioz edo herritarren eskaerei erantzunez, Udalak 24 leku berri sortu zituen 2016an minusbaliatu fisikoentzat: Obieta, Iratxeko monasterioa, Izaltzu, Villafranca, Noain, Zangoza, Barkazio Gurutzea, Abaurregaina, Joan Labritekoa, Francisco Bergamín, Irurita apezpikua, Arga ibaia, Jauregiko aldapa, Errotazar, Itza zendea, Berriobeiti, Kaseda, Cordovilla, Ardatz kontzejua, Zizur zendea, Antsoain, Sanduzelai (etorbidean eta kalean) eta Julián Gayarre.
- **Ziklo-kaleen seinaleztapena Sanduzelain.** “Ziklo-kaleak” seinaleztatuko dira, hots, abiadura orduko 30 kilometrora mugatuta duten kaleak; erreiaren erditik ibili ahalko dira bizikletak haietan. 2016an, Sanduzelai auzoan hasi ziren neurriak ezartzen.
- **Kuxin berlindarrak eta abiadura moteltzeko zerrendak.** 2016an, 17 kuxin berlindar jarri ziren hiriko 6 tokitan, segurtasun gehiago emateko oinezkoendako pasabideei edo abiadura mantsotzeko tarte jakin batzuetan: Katalunia-Mutiloabeiti, Eguesibar (futbol-zelaia), Katalunia-Áriz doktorea, Ermitagaña (Jaso ikastola) eta Miluze-Ermitagaña (bai hegoaldean, bai iparraldean).
- **Mando-bizkarrak.** Zirkulazio-abiadura mantsotzeko Bide Segurtasuneko Planak jasotako neurrien artean, mando-bizkarrak ezartzea dago, konkorrak edo traba bat jarrita galtzadan. Toki hauetan guztietan jarri ziren, zirkulazioaren bide norabideetan: Otsagabia kalea (Bernardino Tirapu-Juslarrocha tartean); Kaiko kalea (tren-geltokitik hurbil); Kaiko kalea (Buztintxurirekin lotzen duen oinezkoendako pasabidearen ondoan); Pablo Antoñana kalea (parkeko zubira joateko oinezkoendako pasabidearen ondoan); Fernando Remacha kalea; Eguesibar kalea (futbol-zelaiaren ondoan); Eguesibar kalea (Martín Baena kalearekin bat egiten duen tokian); Adela Bazo (Fernández Serrano kalearekin bat egiten duen tokian, oinezkoendako pasabidearen ondoan); eta Adela Bazo kalea (Áriz doktorea eta Garcera López kaleekin bat egiten duen tokian).
- **Tokien erreserbak.** Tokia erreserbatzeko 2 lizentzia eman ziren 2016an (bata, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziarentzat, Erreginaren aldapan, eta bestea, Kontuen Ganberarentzat, Ansoleaga kalean), eta beste bi kendu (bata, Pablo Sarasate fundazioarena, Aita Moret kalean, eta bestea, autoeskola batena, Zangoza kalean).

SEINALEZTAPEN HORIZONTAL ETA BERTIKALAREN MANTENTZE-LANAK

2016an zehar, milatik gora lan egin ziren seinaleztapen horizontala eta bertikala garbitzeko, mantentze-lanak egiteko, falta zirenak jartzeko eta aldaketa txikiak egiteko auzo guztietan. Ardatz eta ertzen seinaleztapen horizontala birmargotu eta hobetu zen zirkulazio-bide nagusietan, eta oinezkoendako pasabideak, ardatz-galtzadak, testuak, ikurrak, geziak eta aparkalekuak modu integral eta intentsiboan margotu ziren Sanduzelai, Etxabakoitz, Iturrama eta Donibanen.

Aparkatzeko leku “zurien” seinaleztapenaren mantentze-lanei dagokionez, 2.000 inguru margotu ziren 2016an, Elkarkiderekin elkarlanean egindako programa baten bidez, Sanduzelai, Mendillorri eta Orvinan, baita hilerriko zein Sanduzelaiko igerilekuetako aparkalekuetan ere.

SEMAFORO-INSTALAZIOAK ETA CCTV KAMERAK

510 semaforo-instalazio konpondu ziren 2016an, matxuratuak eta istripuek kaltetuak: hau da, semaforoak, cctv kamerak, zutoin pneumatikoak, zinemometroak eta neurgailuak. Martxoan eta irailean izan ziren gorabehera gehien, 65na esku-hartzerekin. 2016an, milatik gora mantentze-, garbitze-, eta birjartze-jarduketa egin ziren.

Zirkulazio-instalazioak jarri eta babesteko lanak 2016an, urtarrilean, Telvent Arce Sistemas S.A. enpresari esleitutako kontratuaren bidez egiten dira. Honatx jarduketa nagusiak: semaforoa jartzea Urdazubiko monasterioaren kaleko oinezkoendako pasabide berri batean; semaforo osagarriak jartzea Alde Zaharrerako irteera kontrolatzen duten zutoin pneumatikoetan, erabiltzaileak segurtasun handiagoa izan dezan zutoinak igotzen diren unean (Estafeta, Ahumada dukea eta Comedias kaleetan); itsuendako soinu-ohartarazleak eta oinezkoendako atzerantzko kontagailudun semaforoak jartzea Sarrigurengo errepidean kokatutako zortzi pasabidetan.

Halaber, hainbat puntutako instalazioen prestazioak berregin edo optimizatzeko beharra egiaztatu zen, ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazio-baldintzak hobetze aldera. Hartara, Katalunia etorbidean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikasgelategiaren aurrean, semaforoak erregulatutako oinezkoendako pasabide bat atzeraeman, eta semaforo bat jarri zen irteera horretan. Sanduzelaiko etorbidearen eta Fleming doktorearen kalearen artean, semaforoz erregulatu zen ezkererako biraketa, auzokideek zuzeneko sarbidea segurtasunez egin dezaten. Bestetik, Zaragozako etorbidean, Labiano kalearekin bat egiten duen tokian, semaforo-erregulatzaileri berria jarri zen, oinezkoendako pasabideari zerbitzua emateko.

Cctv kamerei dagokienez, HD kamerak instalatu ziren San José udal-hilerrira sartzeko 9 ateetan, lapurretak saihesteko, baita Arantzadi aldean ere. Zuntz optikozko linea bat jarri zen Etxabakoizko igogailu berrietan bideo bidezko zainketa integratzeko, eta HD kamera bat instalatu zen Galaxiaren Lorategian bere osaketaren *time-lapse* egiteko.

Semaforo-instalazioen eta bideo bidezko zainketaren kontratuaren barruan, 2016an, zeuden zutoin pneumatikoak kendu, eta **matrikula-irakurketa bidezko kontrol-sistema** instalatu zen Alde Zaharrean. Erabat eraginkorra izan dadin, auzoko sarreragune eta irteeragune guztietan jarri ziren kamerak. Sistemak sarrerak kontrolatzeko zein barruan emandako denbora neurtzeko balio du. Hauexek dira kontrolguneak: Kale Nagusia-Basotxo (sarrera-irteera), Kale Berria (sarrera), San Antón-Navas de Tolosa (irteera), Sarasate pasealekua-Navas de Tolosa (irteera), Sarasate pasealekua-San Ignazio (sarrera), Espoz y Mina (sarrera), Estafeta (sarrera), Labrit-Merced-Apezpikutza (sarrera), San Agustín (irteera), Karmen (sarrera-irteera), San Domingo (sarrera) eta Hezkuntza Departamentuko aparkalekua (irteera).

KALEETAKO PLAKAK ALDATZEA

Urriaren 21eko Osoko Bilkurak Iruñeko Udalaren eskumena den hizkuntza-paisaia euskarak eta gaztelaniak presentzia berbera izateaz hartutako erabakia betetze aldera, hainbat plaka sorta aldatu ziren Alde Zaharreko, I. Zabalguneako, Txantreako eta Arrotxapeko kaleetan.

Halaber, erabakia betetzen ez zuten auzoetako norabide-seinaleak aldatu ziren: Casco Antiguo/Alde Zaharra, Chantrea/Txantrea, Etxabakoitz, Erripagaña, Rochapea/Arrotxapea, San Jorge/Sanduzelai, eta San Juan/Donibane.

APARKATZE ARAUTUKO TXARTEL KOPURUA ETA TAO LEKUAK

2016an, 28.690 bizilagun-txartel eta 700 jarduera-txartel egin ziren. Sektorez sektore, lehenean (Alde Zaharra) 2.192 egin ziren; bigarren (Zabalgunea), 5.206; hirugarrenean (Milagrosa-Azpilagaña), 3.962; laugarrenean (Iturrama), 7.066; bosgarrenean (Mendebaldea-Ermitagaña-Ipar Etxabakoitz), 5.361; eta seigarrenean (Donibane), 4.903. Jarduera-txartelei dagokienez, 4. sektoreak 247 ditu; kopuruz, ondotik, seigarren sektorea heldu da (197), eta gero, bosgarrena (172). Bigarren sektorean, 44 daude; hirugarrenean, 37; eta lehenean, 3 txartel.

TAOk aparkatzeko 21.227 leku ditu guztira araututa; 10.463 urdinak dira; 171, gorriak; eta 10.593, laranja. 2013tik, mugikorretik ere egin daiteke ordainketa, aplikazio baten bidez; horri esker, isunak ezeztatu edo autoa aparkatuta uzteko denbora luzatu daiteke ere, autora joan

beharrik gabe. 2016an, 2,9 milioi ordainketa-eragiketa egin ziren aplikazioarekin, guztien heren bat inguru. Beraz, kopurua % 54 igo zen, aurreko urtekoaren aldean. Gero eta gehiago erabiltzen ari da aplikazioa, beraz, abiarazi zenetik; izan ere, 232.822 ordainketa egin ziren 2013an mugikorrarekin, 2016an egindako guztien % 8 baino ez.

Aurreko urtean bezala, uztailaren 6tik 14ra, urte osoan aparkatze arautua duten eremuek *alde laranjagisa* funtzionatu zuten. Xedea da festetan zehar ibilgailuek hobeki aparkatzea hiriaren erdigunean, etxebizitza-autoak eragozteak, automobilaren erabilera arrazionalizatzea eta mugikortasun iraunkorra sustatzea. Aldi berean, auzo berrietako disuasio-aparkalekuen erabilera sendotu zen, seinaleztapen berezi baten bidez sendotu ere, aparkatzeko leku asko baitaude, eta jende gutxi bizi baita, hala nola Lezkairu eta Arrosadia. Neurri hori Iruñerriko Mankomunitatearen ekimen bati lotuta egon zen; hau da, autobus-linea bat jarri baitzuen martxan auzo horiek hiriaren erdigunearekin lotzeko.

